

# IGELDOKO TOKIKO ENTITATE TXIKIARI buruzko partaidetza prozesua

1. fasearen emaitzak

# Igeldo



**Toki Entitate Txikia**  
Entidad Local Menor

donostia.eus/auzhartu

**Igeldoko  
Tokiko Entitate Txikia  
sortzeko prozesua**

**Zer da?  
Zertarako?  
Nola?**



**Siadeco**<sup>x</sup>  
ikerketa aplikatua

Berio pasealekua 11, 20018 Donostia  
943 31 00 34  
[siadeco@siadeco.eus](mailto:siadeco@siadeco.eus)





<b>0. PARTAIDETZA PROZESUAREN KOKAPENA ETA AZALPENA .....</b>	<b>4</b>
<b>1. PARTAIDETZA-FORO IREKIKO EMAITZAK.....</b>	<b>6</b>
1.1 Igeldoko Tokiko Entitate Txikia sortzeko prozedura abian jarri izanaren balorazioa.....	7
1.2 Hoberen baloratzen diren zerbitzuak.....	7
1.3 Hobetu beharreko zerbitzuak .....	8
1.4 Ez dauden zerbitzuak, falta direnak.....	9
1.5 Igeldoren garapenerako lehentasunak, etorkizunera begira.....	10
<b>2. ONLINE GALDETEGIKO EMAITZAK.....</b>	<b>14</b>
2.1 Igeldoko Tokiko Entitate Txikia sortzeko prozedura abian jarri izanaren balorazioa.....	14
2.2 Hoberen baloratzen diren zerbitzuak.....	14
2.3 Hobetu beharreko zerbitzuak .....	15
2.4 Ez dauden zerbitzuak, falta direnak.....	15
2.5 Igeldoren garapenerako lehentasunak, etorkizunera begira.....	16
<b>3. ELKARRIZKETETAKO EMAITZAK .....</b>	<b>20</b>
3.1 Igeldoko Tokiko Entitate Txikia sortzeko prozedura abian jarri izanaren balorazioa.....	20
3.1.1 Ikuspegi positiboa.....	20
3.1.2 Ikuspegi negatiboa .....	23
3.2 Hoberen baloratzen diren zerbitzuak.....	25
3.3 Hobetu beharreko zerbitzuak eta falta direnak .....	27
3.3.1 Autobus zerbitzua .....	27
3.3.2 Mugikortasuna .....	29
3.3.3 Zabor-bilketa .....	30
3.3.4 Herri-lanak eta mantenua .....	31

3.3.5 Kultura eta kirola .....	33
3.3.6 Osasuna eta hezkuntza .....	35
3.3.7 Ondarea eta ingurumena .....	36
3.3.8 Turismoa eta bisitariak .....	37
3.3.9 Garapen urbanistikoa .....	38
3.3.10 Hizkuntza .....	38
<b>4. ONDORIO NAGUSIAK.....</b>	<b>39</b>
4.1 Prozesua abiatu izanaren balorazioa eta Tokiko Entitate Txikiaren onurak .....	39
4.2 Hoberen baloratzen diren zerbitzuak.....	40
4.3 Hobetu beharreko zerbitzuak eta falta direnak .....	40
4.3.1 Herri-lanak eta mantenua .....	40
4.3.2 Garraioa eta mugikortasuna.....	42
4.3.3 Etxebizitza-eskaintza eta garapen urbanistikoa.....	42
4.3.4 Hondakinak eta zabor-bilketa .....	43
4.3.5 Aisia, kultura eta kirola .....	43
4.3.6 Osasun- eta gizarte-zerbitzuak.....	44
4.3.7 Eskola .....	44
4.3.8 Ingurumena.....	44
4.3.9 Ondarea.....	45
4.3.10 Turismoa .....	45
4.3.11 Udaltzaingoa .....	45
4.3.12 Hilerria.....	45
4.3.13 Internet, estaldura.....	45
4.3.14 Jarduera ekonomikoa .....	45
4.2.14 Hizkuntza .....	45
<b>5. PARTE-HARTZE DATUAK.....</b>	<b>46</b>
5.1 Partaidetza-foro irekia .....	47
5.2 Online galdetegia.....	49
5.3 Elkarrizketak .....	50



## Partaidetza prozesuaren kokapena eta azalpena


Igeldon Tokiko Entitate Txiki deszentralizatua sortzeko ibilbidearen baitan kokatzen da partaidetza prozesu hau. Ibilbide horretan, Tokiko Entitate Txikia nolakoa izango den, zer eskumen edukiko duen eta nola kudeatuko diren adostuko da, legearen arabera eta azterketa teknikoetan oinarrituz. Baina horiez gain, funtsezkoa izango da igeldotarren iritziak eta ekarpenak ere kontuan hartzea. Horretarako, partaidetza prozesu bat martxan jarri da.

Hiru fase edukiko ditu partaidetza-prozesu horrek. **Txosten honetan, lehen fasearen emaitzak bildu dira.** Ondorengo helburuak eduki ditu faseak:

- Igeldotarrak informatzea: proiektuaren inguruko azalpenak; zer da deszentralizazioa eta zein urrats emango dira?
- TETri buruz igeldotarren iritziak jasotzea: zein dira igeldotarren beharrak, kezkek, interesak...?; nola lagundu lezake deszentralizazio prozesu batek behar horiei erantzuten?

Partaidetza prozesuan parte hartu ahal izateko, hiru kanal eskaini dira:

- **1. Partaidetza-foro irekia:** 2022ko martxoaren 20an antolatu zen, Igeldoko frontoian; 85 parte hartzaile bildu ziren
- **2. Galdetegi elektronikoa:** martxoaren 21etik apirilaren 3ra martxan jarri zen; 44 erantzun jaso ziren.
- **Elkarrizketak herritarrekin:** telefono bidezko elkarrizketak egin ziren Igeldoko herritarrekin, apirilean zehar. 18 elkarrizketa egin ziren.



## Partaidetza-foro irekiko emaitzak

Igeldoko Tokiko Entitate Txikiari buruzko partaidetza prozesuaren baitan, foro ireki bat antolatu zen 2022ko martxoaren 20an, Igeldoko frontoian. 85 lagun bertaratu ziren saiora. Taldekako dinamika bat aurrera eraman zen bertan, planteatutako galderei erantzuteko. Banaka hausnartu ondoren, taldeka erantzun zituzten galderak. Lehenengo hiruak ondorengoak izan ziren.

*Nola baloratzen duzu Igeldoko tokiko entitate txikia sortzeko prozedura abian jarri izana?*

*Zein dira, Igeldoko bizilagun gisa jasotzen dituzun zerbitzuen artean,*

- Hoberen baloratzen dituzunak?*
- Zein dira hobetu beharrekoak?*
- Zein dira falta direnak?*

Jarraian galdera horien erantzun nagusiak bildu dira.

### 1.1. Igeldoko Tokiko Entitate Txikia sortzeko prozedura abian jarri izanaren balorazioa

- Ondo baloratzen da, gertuko kudeaketak herritarren beharrei hobeto erantzutea ekarriko duelako. Herritarrek hobeto ezagutzen dituztela euren beharrak, eta Udala urruti geratzen dela. Auzo abandonatua izan dela Igeldo, ahaztua eduki duela Donostiako Udalak.
- Zertan gauzatzen den argitzeko jakin-mina dago. Informazio zehatzagoa bertatik kudeatuko diren zerbitzuen inguruan.

- 2.aukera gisa ikusten dute batzuek, ez dute udalerrri izateko borondatea eta desanexioaren nahia ezkututzen, eta ez dute baztertzen etorkizunean ere bide horri heltzea.
- Badago mesfidantza bat udalarekiko: berandu iritsi dela, bazela garaia... Udalak duen interesarekiko ere bai: udalak zer irabazten duen, ez ote den udal hauteskundearen atariko eskaintza bat.
- Desio bat ere azaleratu da: Igeldok bere herri-izaera mantentzea.

## 1.2. Hoberen baloratzen diren zerbitzuak

- Autobus zerbitzuaren maiztasuna areagotu izana.
- Errepideak partxeatu izana.
- Kaskoko garbiketa eta zabor-bilketa.
- Kaskoko zerbitzuak.
- Eskolako zerbitzua eta eskolaren mantenuan egin diren lanak.
- Kanposantua eta frontoia.
- Ura eta estolderia.

## 1.3. Hobetu beharreko zerbitzuak

- Bideak eta espaloiak:
  - Herri-bideen eta mendi-bideen mantenua eta garbiketa.
  - Errepideen egoera: zuloak, bide-bazterrak, pintura (ETUMeko sarrera).
  - Espaloia egitea herritik gora. Auzune nagusietan ere ez dago (ETUME-Amezti).
  - Irisgarritasuna bermatzeko lanak (gurpildun aulkiak etab.)
  - Bidegurutze arriskutsuak: Benta Alegre, Amezti, IKO...
  - Zebra-bideen falta.
  - Trafikoaren zaintza, abiadura kontrolatzeko badenak.

- Argiteria: konpontzea, kableak lurperatzea, zenbait tokitan argiztapena hobetzea (bigarren-mailako bideak).
- Estolderia eta uren saneamendua: konpontzea, etxe eta baserri guztietara iristea, uren kanalizazioa, suteei erantzuteko ur-hornidura puntuak.
- Hondakinak eta zabor-bilketa: zabor-ontziak eta zabor-bilketa auzune guztietan, garbiketa puntu zehatz batzuetan (kanpina, Tximistarri), bilketaren maiztasuna errespetatzea eta horretarako informazioa ematea.
- Ekipamenduen egoera txarra: frontoia, komun publikoak, jolas-instalazioak.
- Garraio publikoa:
  - Autobus zerbitzuaren ordutegiak hobetzea eta maiztasuna areagotzea (goizean goiz, asteburuetan gauetan gazteentzat etab.).
  - Autobusean bizikletak eta umeen karroak eraman ahal izatea.
  - Taxi edota mikrobuz zerbitzuak baserri-inguruetara (Behemendi).
- Dirulaguntzak: Kultur jardueretarako, Jai Batzordeari, Lizardi pilota elkarteari.
- Eskolaren eraikina TETek kudeatzea (“herrira irekitzea”)
  - Jangela eta sukalde propioa edukitzea.
  - Aretoak erabili ahal izateko tramiteak arintzea.
- Segurtasuna eta udaltzaingoa: Igeldotik pasatzen da baina ez du esku hartzen.
  - Etxe-lapurretak.
  - Botatako hondakinak zaborra biltzeko lekuetan, ur-putzuak...
- Hilerria: bertatik kudeatzea eta espazio falta.
- Ingurumena:
  - Landare inbaditzaileak ugaritzen
  - Mendizorrotzeko plana
- Internet, wi-fi eta estaldura hobetzea.

#### **1.4. Ez dauden zerbitzuak, falta direnak**

- Osasun zerbitzuak: anbulatorioa edo kontsultorioa (mediku-erizaina), farmazia, dispensarioa.

- Gizarte zerbitzuak: eguneko zentroa, etxez-etxeko zerbitzua, jubilatuentzako espazioa.
- Kultur etxea: liburutegia, ikasteko espazioa, ikastaroetarako gelak, kultur-  
eskaintzarako aretoa (eskola zaharra zaharberritzea).
- Gazteria ekipamendua: ludoteka, gaztelekua.
- Kirol-azpiegiturak.
- Bertako merkataritza: bizirauteko laguntza, babesa.
- Etxebizitza-eskaintza:
  - Babes ofizialeko etheen eskualdaketa igeldotarren esku geratzea.
  - Beharrei egokitutako promozio txiki berriak egitea.
  - Gazteentzako etxebizitzak.
- Garapen urbanistikoa:
  - Eraikuntzarako lizentziak TETek kudeatzea.
  - Lurraldearen babesa eta kontrola.
  - Garapen urbanistikoak egitean igeldotarren iritzia kontuan hartzea eta beharren arabeko garapena egitea.
  - Obra irregularren gaineko kontrola, igeldotarren eskaerak eta iritzia kontuan hartzea bertara zuzentzen diren ekintza eta proiektuen aurrean.
- Turismoa:
  - Harrera-zentro propioa edukitzea.
  - Ondare historiko-kulturala berreskuratu eta mantentzeko tresnak: elur-zuloak, Dindin iturria, herri-bideak, baserri-bideak...
- Teknikari propioak edukitzea:
  - Arkitektoa
  - Aparejadorea
  - Idazkaria



## 1.5. Igeldoren garapenerako lehentasunak, etorkizunera begira

Azken galderan leheneste-ariketa bat egiteko eskatu zitzaizen talde-dinamikan parte hartu zutenei. Euren ustez Igeldoren garapenerako garrantzitsuenak diren bost arloak hautatzeko eskatu zitzaizen. Ondorengo aukerak eman zitzaizkien:

### 1. *Etorkizunera begira, Igeldoren garapenerako, zein dira zure ustez ondorengo arloen artean garrantzitsuenak?*

- › *Gizarte zerbitzuak eta laguntza beharrean dauden pertsonen zaintza*
- › *Eskola eta hezkuntza zerbitzuak*
- › *Ingurune naturalaren zaintza (larreak, basoak, mendiak, itsasoa, errekek, airea...)*
- › *Bideen konponketa eta mantenua*
- › *Garraio publikoa*
- › *Hondakinen bilketa, birziklapena eta murrizketarako sistemak*
- › *Energia berriztagarrien erabilera*
- › *Herriko ondarea zaindu eta balioan jartzeko proiektuak *Proyectos de conservación y puesta en valor del patrimonio municipal**
- › *Turismoaren sustapena*
- › *Baserrien eta landa eremuko bizitegien etorkizuna*
- › *Hirigintza lanak (argiteria, plazak, parkeak...)*
- › *Hirigintza garapena eta planeamendua*
- › *Etxebizitza eskuratzeko aukerak*
- › *Merkataritza zerbitzuak*
- › *Ostalaritza zerbitzuak*
- › *Aisialdiko eskaintza (ikastaroak, kultur jarduerak, kirola...)*
- › *Euskararen sustapena*
- › *Komunitatearen sustapena*
- › *Beste gairen bat*

Emaitzei dagokienez, zazpi taldetik seik gizarte zerbitzuak eta laguntza beharrean dauden pertsonen zaintza hautatu zuten. Zazpitik lauk bideen konponketa eta mantenua, hirigintza-garapena eta planeamendua eta etxebizitza eskuratzeko aukerak.

**1. taula: leheneste ariketan zenbat taldek hautatu duten arlo bakoitza (7 talde izan dira guztira)**

	<b>Arloa</b>	<b>Talde-kopurua</b>
1.	Gizarte zerbitzuak eta laguntza beharrean dauden pertsonen zaintza	<b>6</b>
2.	Bideen konponketa eta mantenua	<b>4</b>
3.	Hirigintza garapena eta planeamendua	<b>4</b>
4.	Etxebizitza eskuratzeko aukerak	<b>4</b>
5.	Garraio publikoa	<b>3</b>
6.	Aisialdiko eskaintza	<b>3</b>
7.	Eskola eta hezkuntza zerbitzuak	<b>2</b>
8.	Ingurune naturalaren zaintza	<b>2</b>
9.	Herriko ondarea zaindu eta balioan jartzeko proiektuak	<b>2</b>
10.	Baserrien eta landa-eremuko bizitegien etorkizuna	<b>2</b>
11.	Hirigintza-lanak	<b>2</b>
12.	Euskararen sustapena	<b>1</b>
13.	Komunitatearen sustapena	<b>1</b>

*Iturria: Siadeco, 2022*

## 1.6. Aztergai izan diren arloen inguruan jasotako testigantzak

Leheneste-ariketa horren atzean dauden beharrak eta gogoetak ilustratze aldera, talde-dinamikako parte-hartzaileek arloetako batzuei buruz idatzitako zenbait iruzkin ekarri dira dokumentu honetara.

### 1. Gizarte zerbitzuak eta laguntza beharrea dauden pertsonen zaintza

*“Bizi-kalitatean eragin zuzena duela eta beharrak ugaritzen ari direlako. Hirugarren adinekoak bertan gelditzea oso garrantzitsua delako”*

*“Ez dagoelako ezer eta herritar heldu asko”*

*“Eguneko zentro baten beharra”*

*“Asistente soziala, konsultorio beharra”*

*“Adinean gora doan eremu bat”*

*“Baserrietan asko bakarrik eta herrigunetik urruti”*

*“Adineko jende asko dago, bereziki landa-eremuetan, oso sakabanatuta. Autonomiarik gabe aurkitzen dira medikuarengana joateko, txertoak, sendagaiak...”*

### 2. Bideen konponketa eta mantenua

*“Bidearen hobekuntza orokorra behar dugulako: oinezkoak...”*

*“Bertako plangintza beharra”*

*“Arrisku ikuspegitik: zuloak, espaloiak, argia”*

### 3. Garraio publikoa

*“Autoaren erabilera murrizteko eta mugikortasuna errazteko ezinbestekoa delako. Herritarren autonomia bultzatzeko. Energia aurrezteko eta komunitatea egiteko”*

*“Lanera autobusez ezin joan”*

*“Ordutegia, maiztasuna, distantzia”*

### 4. Etxebizitza eskuratzeko aukerak

*“Hori gabe etorkizunik ez”*

*“Komunitate beraren etorkizuna, Igeldoren berezitasunak mantentzeko”*

*“Ez dago gazteentzat etorkizunik (txaletak, baserriak)”*

*“Bertako jendeak behar duelako. Bertako nortasuna bertakoek bermatzen dute. Gazteek alde egiten badute, herriaren nortasunaren etorkizuna ez da bermatzen”*

### 5. Hirigintza garapena eta planeamendua

*“Hirigintza garapena eta planeamendua oinarria da zer nolako Igeldo nahi dugun erabakitzeko”*

*“Etorkizunean zer izan nahi dugun eta zein zerbitzu nahi ditugun hirigintza-plangintza batekin definituko dugu: etxebizitza-beharrak aztertu, definitu, lurraren kudeaketa, babesa...”*

*“Aurrekoarekin lotuta, herriaren etorkizuna bermatzeko, bertatik begiratzen diona”*

*“Kontuan hartzea hirigintza planeamenduetan igeldoarren beharrak, iritziak eta bertara egokitutako planteamenduak gauzatzea”*

## 9. Aisialdiko eskaintza

*“Azpiegitura beharra”*

*“Ez lotarako auzo/herri bat”*

*“Liburutegia”*

*“Jubilatu Elkartea”*

*“Gaztelekua”*

*Herriko jendea elkartzeko, bertan gelditzeko, bizitza elkarrekin egiteko.  
Sozializatorako”*

# 2

## Online galdetegiko emaitzak

Partaidetza prozesuan parte-hartzeko 2.kanala online galdetegia izan da. Esteka bidez zabaldu da galdetegia igeldotarren artean, eta [www.donostia.eus/auzhartu](http://www.donostia.eus/auzhartu) webgunean ere eskuragarri egon da. Guztira, 44 erantzun jaso dira. Planteatu diren galderak, partaidetza-forokoen berdinak izan dira. Erantzunen azterketa egin da jarraian.

### 2.1. Igeldoko Tokiko Entitate Txikia sortzeko prozedura abian jarri izanaren balorazioa

- Balorazioa positiboa da, orokorrean. Aurrerapauso modura ikusten da kudeaketa autonomoagoa lortzeko. Etapa onuragarri eta positibo baten hasiera izan daitekeela.
- Igeldoko beharrak hobeto ezagutuko direla eta komunikazioa zuzenagoa izango dela jaso da.

- Batzuek mesfidantzaz ikusten dute, azpimarratuz berandu datorrela eta ez dela igeldotarren borondatea errespetatu. Oso kritikoak diren mezu batzuk ere jaso dira: “ile hartze bat da”.
- Batzuek ez dute baztertzen desanexioaren bidea itzultzea, hori baitute azken helburu. Behin behineko soluzio modura ikusten dute Tokiko Entitate Txikia, beste aukerarik ez zaielako eman.

## 2.2. Hoberen baloratzen diren zerbitzuak

- Eskola, guraso elkarteak
- Ieltxo kultur elkarteko kultur ekintzak
- Kultur Etxeak bideratutakoak
- Herri Kontseilukoak: ikastaroak, ekitaldiak, auzolana...
- Itsas Aurrek bidaltzen dituen informazioak
- IKO Igeldoko kooperatiba
- Ostalaritza-eskaintza

## 2.3. Hobetu beharreko zerbitzuak

- Gizarte politikak: zaintza, osasungintza.
- Etxebizitza: bertako beharrei erantzunez, etxebizitza soziala.
- Landa-eremuaren eta naturaren babesa.
- Herri-antolaketari errespetua. Auzolanari bultzada.
- Kudeaketa propioa. Erabakitze ahalmena.
- Ondarearen mantenua: eraikinak, bideak...
- Herritarrei arreta.
- Arazoen aurrean erantzun azkarra.

## 2.4. Ez dauden zerbitzuak, falta direnak

- Ogi-egunkari zerbitzua baserrietara
- Elurra kentzeko makinak bigarren mailako bideetan
- Seinaleak bidegurutzeetan, etxeen eta baserrien izenekin
- Suteei aurre egiteko neurriak
- Mendizorrotzeko parkea balioan jarri
- Nekazaritza arloko dirulaguntzak
- Bertako ekonomia sustatzea
- Bidegorria Donostiara
- Kiroldegia

## 2.5. Igeldoren garapenerako lehentasunak, etorkizunera begira

Leheneste-ariketa egiteko ere eskatu zaie online galdetegia erantzun dutenei. 44tik 32k bideen konponketa eta mantenua hautatu dute, bost lehentasunen artean. 23k ingurune naturalaren zaintza eta etxebizitza eskuratzeko aukerak.

**2. taula: leheneste ariketan zenbat pertsonak hautatu duten arlo bakoitza (44 pertsona izan dira guztira)**

	<b>Arloa</b>	<b>Pertsona-kopurua</b>
1.	Bideen konponketa eta mantenua	<b>32</b>
2.	Ingurune naturalaren zaintza (larreak, basoak, mendiak, itsasoa, errekek, airea...)	<b>23</b>
3.	Etxebizitza eskuratzeko aukerak	<b>23</b>
4.	Hirigintza lanak (argiteria, plazak, parkeak...)	<b>21</b>
5.	Garraio publikoa	<b>20</b>
6.	Gizarte zerbitzuak eta laguntza beharreen dauden pertsonen zaintza	<b>18</b>
7.	Energia berriztagarrien erabilera	<b>16</b>
8.	Baserrien eta landa eremuko bizitegien etorkizuna	<b>14</b>
9.	Eskola eta hezkuntza zerbitzuak	<b>11</b>
10.	Herriko ondarea zaindu eta balioan jartzeko proiektuak	<b>11</b>
11.	Hirigintza garapena eta planeamendua	<b>10</b>
12.	Aisialdiko eskaintza (ikastaroak, kultur jarduerak, kirola...)	<b>8</b>
13.	Hondakinen bilketa, birziklapena eta murrizketarako sistemak	<b>6</b>

*Iturria: Siadeco, 2022*

Nolanahi ere, diferentzia esanguratsuak antzematen dira leheneste-ariketa horretan, emaitzak generoaren, adinaren eta auzoaren arabera aztertzen direnean. Bideen konponketa eta mantenua da salbuespena, kasu guztietan baitago postuan baitago gehien hautatutako arloen ranking-ean. Bigarren tokian, aldiz, gizarte zerbitzuak eta laguntza beharreen dauden pertsonen zaintza ageri dira 60 urtetik gorakoan artean; energia berriztagarrien erabilera, aldiz, 30 urtetik beherakoan artean.



**3. taula: leheneste ariketan gehien hautatutako arloen ranking-a, generoaren, adinaren eta auzoaren arabera**

	Emakumezkoa	Gizonezkoa	<30	30-59	>=60	Amezti	Hegoaldea (Gudamendi, Tximistarri, ...)	Herrigunea	Mendialdea (Agiti, Arritxulo, Buztinzuri, ...)
1	Bideen konponketa eta mantenua	Bideen konponketa eta mantenua	Bideen konponketa eta mantenua	Bideen konponketa eta mantenua	Bideen konponketa eta mantenua	Bideen konponketa eta mantenua	Bideen konponketa eta mantenua	Bideen konponketa eta mantenua	Bideen konponketa eta mantenua
2	Garraio publikoa	Etxebizitza eskuratzeko aukerak	Energia berriztagarrien erabilera	Etxebizitza eskuratzeko aukerak	Gizarte zerbitzuak eta laguntza beharrendaudeen pertsonen zaintza	Ingurune naturalaren zaintza	Etxebizitza eskuratzeko aukerak	Ingurune naturalaren zaintza	Etxebizitza eskuratzeko aukerak
3	Hirigintza lanak	Ingurune naturalaren zaintza	Baserrien eta landa eremuko bizitegien etorkizuna	Ingurune naturalaren zaintza	Ingurune naturalaren zaintza	Eskola eta hezkuntza zerbitzuak	Gizarte zerbitzuak eta laguntza beharrendaudeen pertsonen zaintza	Garraio publikoa	Ingurune naturalaren zaintza
4	Ingurune naturalaren zaintza	Energia berriztagarrien erabilera	Etxebizitza eskuratzeko aukerak	Hirigintza lanak	Hirigintza lanak	Energia berriztagarrien erabilera	Hirigintza lanak	Hirigintza lanak	Garraio publikoa
5	Etxebizitza eskuratzeko aukerak	Baserrien eta landa eremuko bizitegien etorkizuna	Ingurune naturalaren zaintza	Garraio publikoa	Garraio publikoa	Baserrien eta landa eremuko bizitegien etorkizuna	Energia berriztagarrien erabilera	Gizarte zerbitzuak eta pertsonen zaintza	Hirigintza lanak

Iturria: Siadeco, 2022

## 2.6 Aztergai izan diren arloen inguruan jasotako testigantzak

Aurreko atalean bezala, leheneste-ariketa horren atzean dauden beharrak eta gogoetak ilustratze aldera, online galdetegia erantzun dutenek arloetako batzuei buruz idatzitako zenbait iruzkin ekarri dira dokumentu honetara.

### 2. Bideen konponketa eta mantenua

*“Gurpil aulki batekin ezin zara mugitu”*

*“Ondarea zaindu behar dugulako, bideak barne”*

### 4. Etxebizitza eskuratzeko aukerak

*“Gure herrian bizitzeko aukera nahi dugu gazteok ere”*

*“Etxebizitza eskuratzeko aukerarik gabe, Igeldok ez du etorkizunik. Gazteek kanpora joan beharko dute bizitzera”*

*“El acceso a un tipo de vivienda que se adapte a la realidad socioeconómica del momento y entorno en el que vivimos es casi inexistente”*

### 5. Hirigintza garapena eta planeamendua

*“Gure hirigintzaren etorkizuna gure eskutan egon behar zelako”*

*“Hirigintza-planek definitzen dute herri baten eta bere lurren itxura eta erabilera”*

### 6. Energia berriztagarriak

*“Geroz eta lehenago preparatu energia berriztagarriekin hobe”*

*“Guzti hori klima aldaketaren aurkako neurriak hartzeko testuinguruan txertatu behar da: ibilgailu pribatua gutxitu, energia berriztagarriak sustatu...”*

## 7. Ingurune naturalaren zaintza

*“Geroz eta jende gehiago igotzen da Igeldora gune naturalak zaborrez eta plastikoz zikinduz”*

*“Eta animaliak ez al dira existitzen gure Igeldo zoragarri hontan????!!!!!! Ez ta aipatu ere!!!! Oso gainetk zaudetela uste dezue nunbait!!!!”*

## 13. Turismoa

*“Igeldo es uno de los pulmones verdes de Donostia pero no está preparado (mala calidad de la red de carreteras, falta de aceras, espacios de bide gorri...) para recibir el volumen de gente que recibe cualquier fin de semana, o día en temporada alta de turismo”*

*“Turismoa eta garapen ekonomikoa (Igeldoko errealitatera egokitutakoa)”*



## Elkarrizketetako emaitzak

Partaidetza prozesuko hirugarren kanala elkarrizketarena izan da. 18 elkarrizketa egin dira guztira, telefonoz, Igeldoko Herri Kontseiluak diseinatutako herritarren lagin estrategiko batekin. Lagin estrategiko hori definitzeko, ondorengo aldagaiak konbinatu dituzte, ahalik eta lagin anitzena lortzeko asmoz: adina, bizitokia, euskararen ezagutza eta Igeldo udalerria izateko aldarrikapenarekiko jarrera. Elkarrizketa horietan, edukietan sakontzeko aukera izan da.

### 3.1. Igeldoko Tokiko Entitate Txikia sortzeko prozedura abian jarri izanaren balorazioa

#### 3.1.1. Ikuspegi positiboa

- Igeldon Tokiko Entitate Txikia sortzea modu positiboan ikusten dutenen multzoan, argudio ezberdinak daude. Batzuek Donostiarekiko autonomia handiago baten aldarrikapen historikoan jartzen dute arreta. Desanexioa ezinezkoa izan dela ikusita, praktikotasun ikuspegi batetik, hobekuntzak lortzeko aukera modura ikusten dute.

*“Positivamente. Porque entiendo que hace tiempo demandaba el pueblo una capacidad de autonomía que carecía con el estatus actual”*

*“Entiendo que había una necesidad de satisfacer algunas cosas que se quieren hacer y ha habido muchos impedimentos”*

*“Ondo. Iruditzen zait egokia dela. Nola desanexioa ez zen lortu... Praktikoak izan behar gara. Eta da beste aukera bat. Behintzat gauza batzuk hobetzeko”*

*“Ez da igeldotarrek nahi zutena baina, tira, hobe hori ezer ez baino”*

*“Interesante de cara al progreso y mejora general”*

- Donostiako gainerako beste auzo gehienekin alderatuta, Igeldo berezi egiten duten ezaugarriak daudela uste dute. Landa-eremuan kokatuta egotearekin eta bizimodu aldetik ere horrek dakarrenarekin lotuta daude ezaugarri horiek. Alde horretatik, igeldotarren beharrak beste auzoetako biztanleen beharrekiko ezberdinak dira askotan. Behar horiei erantzuteak autonomia eta eragiteko ahalmen handiagoak eskatzen dituela uste dute.

*“Es indudable que Igeldo tiene unas características propias que lo hacen muy diferente de cualquier otro barrio de Donostia. Por su ubicación y por su manera de vivir. Es absolutamente necesario un margen de autonomía que responda a esas necesidades”*

- Tokiko Entitate Txikiari ikusten zaizkion onurei dagokienez, hurbiltasuna da nagusia. Zenbat eta hurbilago egon, hobeto ezagutzen direla beharrak. Gainera, beharrak hobeto ezagutzeaz gain, TETak behar horiei modu azkarragoan eta eraginkorragoan erantzuteko aukera emango duela iruditzen zaie. Gaur egun, Donostiako Udalaren kudeaketak ez dituela ezaugarri horiek betetzen —azkartasuna eta eraginkortasuna—. Horrekin lotuta, prozedurak arindu egingo direla eta komunikazioa zuzenagoa, iraunkorragoa eta efizienteagoa izango dela aurreikusten dute.

*“Gobernua zenbat eta hurbilago egon, hobeto. Beharrak hobeto ezagutzen dira”*

*“Gure beharrekin gehiago kunplituko luketela. Gu arduratuko ginateke gehiago. Donostiara iritsiko dira gure beharrak, baina ez da erraza bertan bizi ez denak gure beharrak ikustea”*

*“Posibilidades de acceder de una manera más efectiva y rápida. La gestión por parte del Ayuntamiento de Donostia no lo es”*

*“En el deseo de que se agilicen algunas gestiones sí. Comunicación más fluida, más constante y más eficiente. Entiendo que somos muchos barrios, muchas demandas. Agilizar los procesos”*

*“Algunas iniciativas se han tenido que aprobar por medio de mecanismos de participación ciudadana. Han venido por ese camino”*

*“Tendremos una comunicación más directa con el consistorio. Tendremos en algunas decisiones más peso a la hora de pedir o conseguir mejoras”*

*“Bertako bizilagunen beharrek konponbide azkarragoa izateko modua ikusten dut Tokiko Entitate Txikiaren bitartez. Beharrei erantzuteko modu arinagoa, azkarragoa, efizienteagoa”*

- Izan ere, gaur egun, Donostiako Udalak Igeldo ahaztua edo abandonatua duela hautematen dute. Babesgabetasuna ere aipatu da. Udalak beste interes batzuk lehenesten dituela ere bai; esate baterako, askotan, egiten diren esku-hartzeak turismoari begira egiten direla, ez igeldotarren beharrei erantzuteko: autobus-zerbitzuaren maiztasuna, konponketak errepidean...

*“Los que vivimos en Igeldo tenemos un cabreo monumental con el ayuntamiento. Sensación de desamparo”*

*“Ahora mismo están poniendo petachos en el suelo, pero por los turistas y no por la gente que vive en el barrio...”*

*“Autobuses nuevos en época de verano, cuando está el camping abierto, para el resto del año, que es cuando andan los vecinos, los viejos”*

*“Porque entiendo que al final tendremos un poco más de decisión a la hora de ejecutar mejoras. Sí que es verdad que estamos abandonados”*

*“Donostiako Udalak, Igeldo hiriko auzo bat izanik, erabat ahaztua dauka”*

*“Generalki dena, oso utzia dago herri mailan, kaso ez du egiten udalak”*

- Igeldoren ezaugarrietako bat den herrigintza autogestionatuaren balorazioa oso positiboa da. Herria batu eta dinamizatu egiten duela. Eta hori, neurri handi batean, Donostiatik “dena emanda” ez datorrelako gertatzen dela. “Egiten uzten” diela udalak, esate baterako, herriko jaietan edo kultur-jarduerekin lotuta. Dinamika hori ez galtzearen eta kalitatezko zerbitzuak eskaintzearen arteko oreka bat bilatu beharko litzateke Tokiko Entitate Txikiarekin. Bide-bazterren garbiketarena adibide egokia da. Gaur egun kamioi bat pasatzen da lan hori egitera, baina batzuek penaz gogoratzen dute garai batean auzolanean egiten zela.

*“Gustatzen zaidana da Donostiatik ez daukagunez, guk egiten dugula. Eta horrek batu egiten du. Ez daukagunez kultur etxerik, guk egiten ditugu. Hori gustatzen zait, dinamika sortzen duelako herrian. Dena emanda datorrenean, ez dago horrelakorik”*

*“Herriko jaiak eta antolakuntza. Ia dena egiten da Igeldon. Uzten dute gure kabuz antolatzea”*

*“Kultur etxea gure kabuz eramatea”*

*“Lo que hay de actividad es lo que la propia gente del pueblo dinamiza”*

*“Una vida social que es una maravilla. Ejemplo de magnífica gestión”*

*“Igeldo tiene una gran vida cultural gracias al esfuerzo de sus habitantes. Hay una sociedad que genera actividades de este tipo, bienvenido si el ayuntamiento ayuda en lo posible, sin interferir en la vida cultural del pueblo. Se deja hacer apoyando económicamente o de otras maneras, con material o lo que sea”*

*“Me gusta mucho el movimiento popular de mucha gente. Lo que más valoro. Hay personas, no hay una institución”*

*“Garbiketako kamioitxoak bide-bazterrak garbitzera. Lehen auzolanean garbitzen genituen. Alde onak eta txarrak”*

### **3.1.2. Ikuspegi negatiboa**

- Herritarren beste multzo batek ez du Tokiko Entitate Txikia aukera modura planteatzen. Iruditzen zaie, desanexioa ezinezkoa izan zenez, bigarren aukera modura hartu dela Tokiko Entitate Txikiaren bidea. Gutxietsi egiten dute, nolabait. Donostiako Udalarekiko mesfidantza ere badago, Igeldo herri izateko borondate hori “isilarazteko” modu gisa planteatu duelakoan Tokiko Entitate Txikiaren aukera.

*“Bere garaian, erreferendumaren alde egin zen eta baztertu egin zen. Orain beste aukerarik ezean”*

*“Personalmente estoy por la independencia. Me parece una negociación a la baja. Entidad menor, ya lo está diciendo. El titular ya lo dice”*

*“Mi punto de vista es que siempre que hay una reivindicación debe tenerse en cuenta. Y no se ha hecho. Se han visto obligadas a tomar una medida, que es algo intermedio”*

*“Ez positiboa. Nahi nuen bueltatu herri izatera. Salmenta bat iruditzen zait, udaletxetik tori hau eta isilik egon. Ez zait gustatzen”*

*“En Igeldo el Ayuntamiento actúa con mala leche... no sé si será por la guerra que el barrio les ha dado con lo de la desanexión...”*

- Beste susmo bat ere hauteman da: garrantzitsu kontsideratzen diren eskumenei eutsiko diela Donostiako Udalak. Gehienez ere iritzia galdetuko dietela igeldotarrei, baina azken finean, Udalarena izango dela erabakia. “Bizilagunen batzorde” moduko bat izatera mugatuko ote den beldur dira, alde horretatik.

*“Todo dependerá de las competencias y de qué rollo tendremos con el ayuntamiento. Al final no sabes si vamos a ser una mera comisión de vecinos. Tengo mis serias dudas. Porque las competencias importantes se las va a quedar el ayuntamiento. Nos pedirán nuestra opinión y luego harán lo que les da la gana”*

- Tokiko Entitate Txikiarekiko jarrera kritikoa dutenen artean, hala ere, badira Donostiako auzo izaten jarraitzearen aldekoak direnak ere. Jarrera hori egon badagoela eta sarritan ahaztu egiten zaiela onartu dute batzuek, gainera. Euren iritzi berekoak direnei soilik egiten dietela kasu.

*“Francamente lo veo una tontería. Para mí es bueno formar parte de un barrio de San Sebastián”*

*“Bertan bizitza egiten dugunok gustatuko litzaiguke, nolabaiteko autonomia edukitzea. Baina egia da jende askok ez duela nahi. Eta batzutan ahaztu egiten dugu. Sekta bat garela. Dibertsitatea badago”*

- Halaber, Donostiako auzo izaten jarraitzeko borondatea modu esplizituan adierazten ez badute ere, horrek dakartzan abantaila batzuk galtzearen beldurra azaleratu dute beste batzuek: kiroldegietara, liburutegietara, udalekuetara edo beste hainbat zerbitzutara sarbidea adibidez. Bestalde, udalaz gaindiko beste erakundeen aurrean —Foru Aldundia, adibidez—, Igeldoko aldarrikapenek indarra galdu dezaketela ere adierazi dute.

*“Donostiak baliabide asko ditu. Pentsatzen dut ez ditugula galduko, kiroldegia, liburutegia, udalekuak. Gu momentu honetan erraz sar gaitezke. Ez dakit jarraituko dugun”*

*“Alde txarrak: handiagoak izatean indar handiagoa eta baliabide gehiago izatea dakar. Gauzak lortzeko errazago, Foru Aldundiaren aurrean, adibidez, Donostia batek aukera gehiago”*



### 3.2. Hoberen baloratzen diren zerbitzuak

- Igeldon hoberen baloratzen diren zerbitzuetako batzuk ez ditu Donostiako Udalak kudeatzen. Eskola Igeldon bertan edukitzearen balorazioa oso positiboa da, adibidez. IKO Igeldoko Kooperatiba ere oso modu baikorrean baloratzen da, erosketetarako eskaintzen duen aukeraz gain, herritarren bilgune gisa. Igeldon kanpina egotea ere puntu positibo kontsideratzen da.

*“Eskola oso ondo baloratzen dut, puntazo bat da, daukagun zerbitzurik onena”*

*“La escuela también. En su día fue un paso muy importante. Lo valoro muchísimo”*

*“IKO ere bai. Oso baliabide ona izan da, bai biltzeko, tabernak itxita daudelako. Eta bai hornikuntzarako. Ogia erostera Donostiara joan behar ez izatea”*

*“La cooperativa, para hacer la compra”*

*“La Cooperativa agrícola es una maravilla”*

*“La cooperativa también, aunque yo no sea socia”*

- Itsas Aurre elkartearen balorazio oso positiboa da, herria dinamizatzeko betetzen duen funtzioagatik. Igeldon eskaintzen den eskolaz kanpoko jardueren eskaintza oso egokia dela hautematen da, Igeldoko herritarren beharrei eta nahiei erantzuten diela. Txikientzako udalekuen balorazioa ere baikorra da. Igeldotarren artean dagoen komunikazio telematikoak oso ondo funtzionatzen duela jaso da. Hori garatu eta profesionalizatu beharra aipatu da.

*“Me gusta mucho la casa de cultura Itxas Aurre. Hacen un trabajo de dinamizar el pueblo”*

*“Dauden aukerak estraeskolar bezala Igeldon ondo iruditzen zait. Aukerak guretzat zuzenduta daudela. Badakitela herriak zer nahi duen. Ordutegiak ez daude egokituta”*

*“El grupo de whatsapp funciona muy bien, pero es entre nosotros. Por eso me parece que hay que desarrollarlo y profesionalizarlo. En el caso de alertas y demás”*

- Udal-zerbitzuei dagokienez, autobusen maiztasuna da hoberen baloratzen dena. Ordu erdiro autobusa edukitzea aurrerapen handia izan dela hautematen da.

*“Autobusak ordu erdiro edukitzea ere bai. Gure garaian gutxiago zeuden”*

*“Autobusa, maiztasuna. 30min eta udaran pixka bat maizago”*

*“Autobusa. Gu gazteagoak ginenean okerragoa zen orain baino. Ia denok 16 urterekin behar genuen motoa. Eta orain autobus gehiago daude, maizago”*

*“Autobús. Tener un autobús con una frecuencia de media hora a coste de 1 euro francamente no he visto nada parecido en mis 63 años en Alemania”*

- Bide-bazterren garbiketaren balorazioa ere positiboa da. Kale-garbiketari dagokionez, kaskoaren garbiketa da modu positiboan nabarmentzen dena. Argiteriarekin berdina gertatzen da, kaskokoaren balorazioa positiboa da, beste auzune batzuetakoa ez bezala.

*“Errepidea garbitzen dutela, errepidea bera ez. Ingurunea”*

*“Errepide inguruko belar/sasi garbiketa azkenaldian hobetzen ari dira”*

*“Limpieza en el núcleo urbano. Limpieza de calles y cortar el césped y demás en la zona donde juegan los niños, lo hacen con profundidad, limpieza a fondo”*

*“Argia baita ere, herrian ondo. Egon behar zen pixkat gehiago mendian zehar”*

- Udaltzaingoaren erantzun azkarra, edo ur-hornidurarekin eta saneamenduarekin izan diren arazoan aurrean egon den erantzuna ere, modu positiboan baloratu dituzte. Erantzun motelen edo ez eraginkorren lekukotasunak ere jaso dira, hala ere, baita arlo horietan ere.

*“Sí que hay una respuesta inmediata de la policía municipal o Ertzaintza”*

*“Behin euren etxean ur saneamenduari loturiko arazo bat izan zuten eta erantzuna erabat azkarra eta egokia izan zen Udalaren aldetik”*

*“Saneamendu sisteman kriston zuloa, etorriko gera, bai, kasorik ez...”*

### 3.3. Hobetu beharreko zerbitzuak eta falta direnak

#### 3.3.1. Autobus zerbitzua

Autobus zerbitzua ondo baloratzen diren zerbitzuen artean ageri den arren, hobetu beharrekoak ere jaso dira, haren inguruan:

- Buelta handiegia ematen duela eta denbora asko behar duela erdigunera iristeko. Horrek autoa erabiltzera bultzatzen dituela herritar asko. Ibilbidea laburtzea izan da jasotako soluzio posibleetako bat, eta Igeldo-Antigua arteko lanzadera bat sortzea bestea. Antiguari beste linea batzuk hartu ahal izateko.

*“Autobus zerbitzua: ibilbidea, kriston buelta ematen du, 30 minutu behar dira erdigunera iristeko. Igeldoko bizilagun askok kotxea hartzen dugu horrexengatik. Ameztitik tramo bat dago errepidera eta autobusa galtzen baduzu... hurrengo pasa arte 30 minutu eta noski ba kotxea hartzera bultzatzen zaitu horrek”*

*“Me he rendido. Tres cuartos de hora para bajar al centro (...) Una idea sería el sistema de lanzaderas que bajaran hasta el Antiguo. Con el Lurraldebus. Un microbús que ande por ahí y cada cuarto de hora baje hasta abajo”*

*“El día que pongan el funcionamiento el metro, también se necesitará algo que baje hasta las estaciones del metro”*

- Udarako maiztasuna ez dela errespetatzen, trafiko ugari ibiltzen delako. Gainera, udaran askotan autobusa kanpineko jendearekin betetzen dela aipatu da, eta orduan, ez dela Igeldoko herrigunean geratzen.

*“Egia da ez direla beti errealak, ordutegiak ez dituztelako errespetatzen, bereziki udaran”*

*“Udan gainera, 30 minutuko frekuentzia hori ez da erreal, trafiko ugari ibiltzen da eta ez da betetzen”*

*“Udan, gainera, autobusa kanpinekoekin betetzen bada herrian ez da geratzen, herrikoak zerbitzurik gabe geratzen dira”*

*“En verano el autobús llega más lleno. Los turistas van al camping o al pueblo”*

- Autobusean bizikletak eramateko erraztasun handiagoak eskaini behar direla jaso da. Bizikletaren erabilera sustatzeko eta autoaren erabilera murrizteko indarrean sartzen ari diren neurriak orekatzeko.

*“Lehen autobusaren atzealdean leku pila bat zegoen bizikleta eramateko. Orain udaran ez (Gainera tenisean bakarrik igo daiteke). Bizikleta eramateko aukera egongo balitz, gehiago erabiliko nuke”*

*“Segundo el servicio de autobuses. La ciudad se encuentra en un proceso de transición, se ponen impedimentos para el uso del coche. Y es una contradicción tener un servicio de autobús muy deficitario por distintas razones. No solo por la frecuencia. El recorrido, vamos recogiendo a todo el mundo, y lleva más de media hora llegar al centro”*

- Autobus zerbitzua goizean goiz eskaintzea, 30 minutu lehenago hasita, lanera eta institutura joan ahal izateko. Eta larunbat gauetan, autobus-zerbitzua gauetz ere eskaintzea, gazteentzako.

*“El tema de transporte. Me veo en la imposibilidad de trabajar utilizando el transporte público”*

*“Asteburuetan azken autobusa gaueko 22:00etan ateratzen da erdigunetik Igeldora igotzeko. Gazte asko bizi dira Igeldon eta zerbitzua ez da nahikoa. Udako zerbitzua hobea da baino Udalak ez du hori egiten bertako biztanleengatik baizik eta turistei begira”*

*“Gauetan -eta gehiago. Baina 00:00atik aurrera ez daude. Orduan 17-18 dituen batek edo taxia hartzen du, edo gurasoekin...”*

- Beste eskaera batzuk: maiztasuna areagotzea, autobusaren tamaina handitzea — bidaiari gehiago hartzeko—, txikitzea —bideetan hobeto sartzeko eta maniobratzeko—, edo zenbait geltokiren segurtasuna hobetzea.

*“A mí me gustaría el autobús cada 20 min, como hay en verano”*

*“No se puede poner un autobús mini. Al final acabas cogiendo más coche, más moto”*

*“Alguna parada inexistente, por ejemplo Tximistarri. Es que es una cuneta. No vas a desbrozar el monte. Pero da miedo”*

### 3.3.2. Mugikortasuna

- Garraio-zerbitzu osagarriren baten beharra dagoela jaso da, nahiz eta maiztasun txikiagoa eduki. Taxia aipatu da, eta Ulian dagoen mikrobus zerbitzuaren adibidez ere bai. Autobus linea bakarria dagoela eta ez dela eremu guztietara iristen.

*“Adibidez transporte publikoa. Arazoa da dagoela linea bakarria. Nik ulertzen dut oso zaila dela sartzea beste bideetatik. Baina guri urruti geratzen zaigu. Orduan osagarriren bat, maiztasun gutxiagorekin. Edo minibus txikia pasatzea egun batzuetan”*

*“Y dar una vuelta al sistema de transporte. En Ullia hay un servicio distinto. Tienen un servicio especial del ayuntamiento, como una furgoneta. Pero para los vecinos todo el año”*

*“Luego hay otra importante que es difícil de solucionar y es el transporte. El problema es que está muy difuminado todos los caseríos, casas, viviendas, mucha dispersión. El acceso al transporte público es bastante complicado. En algunos sitios hay un microbús que se mete un poco más por los barrios”*

*“El autobús no llega a mi calle”*

- Herritarren batek adierazi du TAO txartelik ez dutela igeldotarrek, hirira autoz jaisten direnerako. Faroaren inguruan bizi direnek badutela.

*“No entiendo por qué la gente que vive en la parte del faro, o en Aiete, tiene derecho a viñeta de OTA anual y nosotros no. Bajamos a la ciudad y no tenemos ninguna ventaja. Pero otros sí lo tienen, por ejemplo los del faro. Una viñeta de OTA”*

- Trafiko-seinaleztapenaren beharra jaso da, bereziki kritikoak diren puntu batzuetan. Marabieta-Amezti bidegurutzea edo Tximistarriko sarrera aipatu dira.

*“Pedimos una señal de velocidad que no se ha puesto. Es un camino vecinal y además camino de Santiago. Hay mucho peatón”*

- Irisgarritasunaren ikuspegitik espaloien egoera hobetu beharra dagoela adierazi da. Ez daudela prestatuta gurpildun aulkiekin ibiltzeko.

*“Espaloiak. Nik karrorik ez daukat, baina lagun bat daukat elbarria, eta ezin dut ekarri. Ez da posible. Eta elbarri izan gabe, ni neu kontu handiz ibili behar izaten naiz”*

*“Aceras, silla de ruedas, coche de niños, no se puede bajar a Donostia, es lamentable”*

### 3.3.3. Zabor-bilketa

- Zabor-bilketari dagokionez, jaso den eskaera nagusia da edukiontzi gutxi daudela eta batzuetan urrutira joan beharra dagoela zaborra botatzera.

*“A menos de 200m no hay un cubo de basura. Hay que llevarse la basura o bien al centro o llevársela por ahí”*

*“Servicio de reciclaje sin tener que coger un coche”*

*“Zaborra herriraino eramán beharra”*

- Bilketaren maiztasuna da bestea. Ez dutela egunero jasotzen, eta batzuetan zabor asko pilatzen dela. Deitu izan zaienean jasotzera etorri izan direla, baina batzuetan, prebentzio gisa ere pasa beharko liratekeela.

*“Basura una exageración, y no la recogen a diario”*

*“Vienen dos veces al año a podar los bordes de la carretera y caminos. Mantener ese cuidado. Igual se podría hacer algo así con la basura. Cuando se acumula he llamado y han venido a recogerlo en seguida. No sé, al final para prevenir”*

*“En verano el tema de recogida de basura. Antiguo, Avenida, muelle...Donde hay turistas, sí. Pero las recogidas no son diarias. Los del garbigune tardan un montón”*

- Edukiontzien ahoa bideari begira egon beharko litzatekeela jaso da, eta ez alderantziz.

*“Kontenedorearen ahoa, egon beharko litzateke bideari begira. Suposatzen dut errorea dela”*

### 3.3.4. Herri-lanak eta mantenua

- Mantenuari dagokionez, errepide nagusiaren egoera oso txarra dela jaso da, batetik. Kontuan hartuta, gainera, trafiko handia jasaten duela —Igeldoko bizilagunez gain, Donostiako auzoetakoak eta baita turistak ere—.

*“Soporta un gran volumen de tráfico, de vecinos y turistas. Está en muy mal estado. Es una carretera de montaña en un entorno urbano. Baches, malas zonas, francamente peligrosa. Es un punto claro turístico de la ciudad, por el camping, por el pueblo, soporta demasiado tráfico. Está peligrosa para lo que soporta. Se debería de actuar, lo que pasa que requiere de mucha inversión”*

*“La carretera. Está hecha una vergüenza”*

*“La carretera está hecha un cristo”*

- Errepide-nagusiaz gain, gainerako errepideak eta herri-bideak konpontzeko beharra ere aterata da. Konpontzea eta garbitzea, errepide nagusia garbitzen den bezala.

*“Asfaltado. Hay unos boquetes... En la general también, pero en mi camino, se está abriendo la calzada. Está super peligrosa”*

*“El más evidente es la carretera. Se gastan un montón de dinero en otras infraestructuras. Arreglos en las carreteras. No la general”*

*“El tema de asfaltado de las calles y de la carretera de acceso al barrio”*

*“Herri bideak atontzea. Ez bakarrik asfaltatutakoak. Herri bide pilat bat, ondare hori galtzear dago”*

*“Garbiketa herri osoan, ez bakarrik errepide zentrala”*

*“La limpieza de los bordes de las carreteras de las calles, de zarzas, de matorrales y demás”*

*“Bideen mantenimentua. Traktorea pasatzen dute eta zikin-zikina uzten dute, deiak egin eta kasurik ez dute egiten”*



- Argiteria publikoari dagokionez, batetik, linea elektrikoaren egoera txarra dela jaso da —kableak zintzilik, posteak okertuta—. Bestetik, kaskoaz gain, beste zenbait eremu ere argiztatu beharra ere jaso da: Gudamendiko sarrera, edo Tximistarriko bidea aipatu dira.

*“Tendido elektrikoak. Telefonikakoak zinta islantearekin lotu zituzten, lurra jotzen dutelako. Kableak zintzilik. Poste batzuk zuzentzea”*

*“Ciertas propuestas como iluminación en la entrada de Gudamendi. Cosas que piden los ciudadanos de Igeldo, que son necesarios que se activen de manera rápida”*

*“Argitasun publikoa ez da ailegatzen nire aldera. Baina hori positibo ikusten dut. Zeren kontaminazio gutxiago dago. Baina beste askorentzako izan daiteke oztopoa”*

*“La iluminación. Tampoco hay iluminación en el camino de Tximistarri. Se supone que es una zona rural, pero la parte izquierda del camino es urbana. No pido algo de diseño, solo luces de bajo consumo cada 50m”*

*“La iluminación en ciertas zonas de Igeldo. Entre ellos el camino de Gudamendi”*

*“La iluminación de mi calle. 25 años desde que me dijeron que sí y 35 esperando”*

*“Argiak, adibidez baserri askotara iristeko gauean ez dago argirik. Ezin da dena farolaz bete, baina igual toki batzuetan bai. Baldin badago justo baserri bat, batentzat igual ez du merezi”*

- Zoladuren eta espaloien egoera txarra ere azpimarratu dute. Kanpinerraino iritsiko den espaloia da aldarrikapen nagusietako bat. Estolda-zuloak ataskatu egiten direla ere atera da.

*“Pabimentazioa, bideen pabimentazioa dago desastre. Eta ez egotea espaloi bat kanpinerraino. Ez dut ulertzen. Gaizkien ikusten dudana”*

*“Las aceras, para que la gente pueda transitar”*

*“Vivo en Amezti. Cuando llueve tengo que sacar la atxurra para desatascar los sumideros”*

- Bankuen eta atsedenerako tokien beharra jaso da, arrazoi bikoitzagatik. Santiago bidea pasatzen dela kontuan hartuta, eta adineko igeldotarrei begira ere bai, paseoan dabiltzanean atsedean hartzeko aukera izan dezaten.

*“Santiago bidea daukagu jendez gainezka. Bankotxo bat, deskantsatzeko tokiak. Ikusten dut amona pare bat paseatzen eta ez daukate non eseri. Ez bost metrero, baina banku bat edo bi Igeldoko tarte honetan. Lortzen dugu aktibo jarraitzea, ez baserrian gelditzea”*

### 3.3.5. Kultura eta kirola

- Kultur-ekipamenduen beharra nabarmendu dute. Batetik, Igeldoko zenbait kultur taldek ez dutelako euren jarduera aurrera eramateko espazio egokirik. Bestetik, kultur-eskaintza areagotzeko aukera emango lukeelako, areto bat edukitzeak, adibidez. Izan ere, gazteek Donostiara jotzeko joera dutela jaso da, kultur-eskaintza erakargarriago baten bila. Gainera, liburutegi baten beharra ere aterata da. Eskola Zaharra eta eliza ondoko lokala aipatu dira aukera gisa. Egungo kultur-etxearen kudeaketa ere hobetu beharrekoetan kokatu dute.

*“Un “areto”. Un sitio donde los pequeños grupos que hay puedan ensayar. El coro cantaba en la iglesia cuando había un cura que era enrollado. Luego acabo muriéndose porque no tenía un sitio. Puede haber grupo de baile, grupo de teatro. Gente que pueda hacer un montón de cosas que acaba saliendo del pueblo porque no tiene un sitio”*

*“Una biblioteca decente”*

*“Kultur etxea ere topera. Ondo legoke Donostiko Udalak edo ez dakit nork gestioak egingo balitu eliza ondoko lokala eta Eskola Zaharra erabili ahal izateko”*

*“Nabarmenena kultur etxearen kudeaketa. Hartu beharko zuen kulturalki eta baita ere aisialdia Eraikuntzak berrikuntza eta egokitasuna”*

*“Kultur etxea, bai kudeaketa eta bai diru gehiago beharko zen”*

*“Habría que darle algo mas de vida cultural al pueblo. Mucha gente joven, porque la población de Igeldo la veo joven, es mucha la gente joven que hemos venido a vivir a Igeldo. A la gente joven y los críos les queda pequeño en esa línea. Más vida de pueblo. Cosa que ahora en seguida recurren a Donosti”*

- Frontoia zaharberritu beharra jaso da. Hasteko ez dituelako pilota-partidak egiteko baldintzak betetzen. Bestetik, beste hainbat erabilera ere ematen zaizkiolako, eta egoera txarrean dagoelako. Beste gune estaliren baten beharra adierazi da —parke bat estaltzea, adibidez—. Igerileku publiko bat edo kiroldegi bat eraikitzeko proposamenak ere jarri dira mahai gainean.

*“Frontoi berri bat, Ibaeta joan beharra, Federazioak ez du uzten behin infantiletik gora partidak bertan egiten, tamainagatik... eta Ibaetara joan beharra”*

*“Realmente el frontón está hecho un desastre. Hay pintadas, la fachada está en muy malas condiciones”*

*“Estalpe bat. Frontoia daukagu, baina plurienpleatua daukagu. Parke batek estalpetxo bat izango balu”*

*“Una piscina pública. Un polideportivo, o mejorar lo que hay”*

- Bi kolektibo espezifikorentzako lokalen beharra jaso da: gazteentzako eta adinekoentzako. Elkartzeko eta haien jarduerak aurrera eraman ahal izateko, Itsas-Aurreko funtzionamenduaz aparte. Bi kolektibo horiek dinamizatzeko, azken finean.

*“Ondo egongo litzateke gazteak elkartzeko espazio egoki bat, aterpearekin. Plaza bakarrik dago, aterpertik gabe. Frontoia desastre bat egina dago, hobe eraikin itxi baten barruan. Itsas-aurre giltzarekin itxita egoten da eta ikastaroak antolatzen dituzte bertan. Ez daukate aukerarik”*

*“Zaharrentzako beste bat, ez dakit oso ongi gaur egun nola moldatzen diren, agian badaukate”*

*“Algo más para dinamizar a la gente mayor. La casa de cultura la veo bien, pero algo más”*

### 3.3.6. Osasuna eta hezkuntza

- Osasun-zerbitzuak bertan eskaintzeko eskaria jaso da, kotxerik gabe mugitzeko zailtasunak dituztelako adinekoek. Anbulategi iraunkor bat edukitzea ezinezkoa izango balitz, adinekoentzako oinarrizko erizaintza zerbitzuak astean behin edo bitan eskaini ahal izatea, behintzat. Osasunarekin lotuta, ambulantiak Igeldoko bideetan galduta ibiltzen direla adierazi da, ez dituztela etxeetara iristeko bideak ezagutzen.

*“Medikugarengana edo erizainarengana joateko ez da oso erraza kotxe gabe. Nik nire burua ikusten dut urte batzuk barru kotxe gabe”*

*“Niretzako preokupazio handiena urruti dauzkagula zerbitzu medikuak, urgentzia batean adibidez. Oso sakabanatuta bizi garela hemen”*

*“Asistencia médica, aunque eso es más complicado. Y es comprensible que no llegue”*

*“Un servicio de ambulatorio. Pero eso va en función de ratios de población. De entrada sí, pero ahí entramos en otros aspectos que no tengo la capacidad. Pero me gustaría. He visto pueblos pequeños con ambulatorios”*

*“Tendríamos que implementar una atención medica básica. No te digo un ambulatorio permanente. Pero sí para las personas mayores que necesiten su sintrom, alguna inyección, tomarse la tensión. Pero por ejemplo ayuntamientos pequeños como puede ser Gabiria lo tienen”*

*“Anbulantziak: hauek ere oso galduta ibiltzen dira, ez dute ingurunea ezagutzen, etxeetarako iristeko bideak..., hori hobetu behar dute”*

- Hezkuntza arloan, Hurrekola eta Bigarren Hezkuntza ere Igeldon eskaintzeko aukera aztertzeke eskaera jaso da.

*“Hezkuntza arloan faltan botatzen dut hurrekola eta lehen hezkuntzako ikasketei jarraipena Igeldon bertan emateko aukera... agian kopuruek ez dute emango baina aukera hori ongi aztertu al da?”*

### 3.3.7. Ondarea eta ingurumena

- Igeldok duen ondare naturalari eta arkeologikoari balioa ematea aipatu dira hobetu beharrekoen artean. Horiak zaintzea eta ezagutaraztea. Mendizorrotz eremuaren aipatu da, bereziki.

*“Badaude arkeologikoki aberatsak diren guneak. Non daude, nola daude? Dindin iturria nola dago?”*

*“Natur arloa: Mendizorrotz. Badakit aktuazio batzuk egin dituztela, bertakoak ez ziren espezie batzuk kendu ziztuzten. Hori balioan jartzea. Eta gero gustatuko litzaidake Mendizorrotz katea kate bezela ikustea, Igeldo Usurbil, Agina, Orio, osatzea kate bat. Horrela aitortzea”*

- Ingurumenaren ikuspegitik, baserrietan eta lursailetan material kutsatzaileak erabiltzen direla salatu da. Eta alde horretatik oso desegokiak diren ohiturak daudela. Igeldon bertan kontzientziazte lana egin beharra dagoela jaso da, beraz. Energia berriztagarrien sustapena ere atera da.

*“Bastante dejadez en algunos terrenos. Que regularan en los caseríos el tema neumáticos, como peso, que es super contaminante. Vigilar todo el tema de sostenibilidad y medio ambiente. Cuando vine a vivir aquí algunos sacaban la basura y la lanzaban por un terraplén, porque siempre lo han hecho así. Educación o charlas en los caseríos. Se ven elementos en los terrenos que no deberían estar”*

*“Fomentar tema de paneles solares. Importante para el cuidado del medio ambiente”*

### 3.3.8. Turismoa eta bisitariak

- Batetik, turismoaren antolaketa handiago baten beharra jaso da, desestazionalizatzekoa, udaran turista-fluxu handia jasotzen baitu Igeldok. Bestetik, etxebizitza turistikoen eskaintza erregulatu beharra atera da, Donostiako beste eremu batzuetan egiten den bezala. Txalet handiak alokatzen direla, askotan, festak egiteko, bizilagunei enbarazu eginez.

*“Turismo más regulado/organizado. Hoy en día se intensifica en algunos periodos del año y en otros momentos está muerto”*

*“Si se crea la entidad, regularizar los Air Bnb. Se están alquilando casas para fiestas. Cada fin de semana fiestón. Así como en el centro solo las primeras plantas... Que sea un servicio más vacacional, Aquí es fiestero. Son villas tan grandes que favorecen grupos de amigos, hacen cumpleaños y cosas así. Que todo sea para una convivencia mejor entre todos. No a costa de todos los vecinos”*

- Ohiko turismoaz gain, Donostiako beste eremuetako bizilagunen bisita ugari jasotzen du Igeldok, batez ere, pandemiaren ondoren. Kale-edanak eta festak izaten direla, musikarekin eta zaratarekin. Mendia zikin uzten dutela ere jaso da.

*“Desde la pandemia muy bien que la gente descubra los monte de la ciudad. Pero como no hay limpieza... La concejala me dijo que se avisase. Y como está lejos, gritos, música, borracheras...”*

*“Basura bildu -eta ondo egiten da kontainerrak dauden lekuetan. Gertatzen dena da orain jende pila bat igotzen dela Igeldokoa ez dena. Eta horiek azkenean bertako jendeak garbitzen ditu”*

### 3.3.9. Garapen urbanistikoa

- Garapen urbanistikoaren inguruko kezka adierazi dute herritar batzuek. Presio demografikoaren eta Donostiak, handitzeko, Igeldoko lurretara jotzearen beldur direla. Planeamendu urbanistikoan eragiteko aukera aldarrikatu dute, horregatik. Gainera, legez kanpoko eraikuntzak egiten direla jaso da.

*“Igeldok lurak ditu eta Donostiak handitzeko beharra. Ezaugarri ezberdin asko ditu Igeldok, inguru rurala da. Altza ere bazen, baina begira zer pasa den. Beldur hori dugu”*

*“Si pudiéramos controlar la expansión urbanística. Se hacen ilegalidades. Que no se colonice con infraestructuras hoteleras, con viviendas como se están haciendo. El poder controlar. Pero eso no nos lo van a dejar hacer”*

*“Kezka handi bat daukat, hau Bera-Bera bezalako zerbait bihurtuko oten dan. Ameztin etxe asko egiten ari dira, “suelo urbano” bezala dago katalogatua eta norbaitek baldintzak betetzen baditu etxea egin lezake”*

### 3.3.10. Hizkuntza

- Informazio asko euskaraz bakarrik zabaltzen duela egotzi diote herritar batzuek Herri Kontseiluari. Hobetu beharrekoen artean kokatu dute hori. Parte hartzeko eragozpena izan dela, eta batzuen kasuan, baztertuta sentitu direla.

*“Hay un grupo, el Consejo se preocupa de la organización de festejos y cursos culturales... la información que mandan es sobre todo en euskera, pero bueno, esto lo han ido mejorando con los años y se agradece, ahora de 10 hojas informativas, 2 son en euskera... por lo menos ni tan mal”*

*“Me molesta mucho que mucha información esté únicamente en vasco. Me excluyen, y excluyen a un porcentaje importante de los vecinos de Igeldo. Todo lo anunciado debería estar en dos idiomas (castellano y vasco) y con letra del mismo tamaño, y no en euskera mucho mayor y tener que buscar el texto en castellano con dificultades... De hecho, muchas veces no participo por este tema, porque muchas sesiones se hacen en euskera...”*

# 4

## Ondorio nagusiak

### 4.1. Prozesua abiatu izanaren balorazioa eta Tokiko Entitate Txikiaren onurak

**1. Prozesua abiatu izanaren balorazioa positiboa da, oro har, gertuko kudeaketa batek herritarren beharrei hobeto erantzungo dielako.**

- Batzuek interesez edo jakin-minez, zertan gauzatuko den jakiteko. Aukera modura ikusten dute.
- Beste batzuek etsipenez, udalerrri izateko aukerarik izan ez delako. Udalarekiko mesfidantzaz ere bai. Horietako batzuek ez dute Tokiko Entitatea sortzea begi onez ikusten.

Donostiako auzo bat gehiago izatearen aldekoak ere badira. Eta jarrera horretan ez badaude ere, Igeldok gaur egun jasotzen dituen zenbait zerbitzu eta abantaila galtzearen beldur direnak ere bai.

**2. Tokiko Entitate Txikiari ikusten zaion onura nagusia gertutasuna da.** Beharrak hobeto ezagutzearekin eta horiei modu azkarragoan eta eraginkorragoan erantzutearekin lotuta. Prozedurak arindu egingo direla eta komunikazioa zuzenagoa izango dela aurreikusten da.

**3. Igeldoren ezaugarri bereizgarriak dagokienez, landa-eremuko kokapenarekin eta bizimoduarekin lotu dituzte.** Horrez gain, herrigintza dinamiko eta autogestionatuarekin, neurri handi batean, Donostiako Udalak Igeldorekiko izan duen utzikeriaren eraginez.



## 4.2. Hoberen baloratzen diren zerbitzuak

Igeldoko zerbitzuen artean hoberen baloratzen direnak:

- Autobus-zerbitzua.
- Kaskoko zabor-bilketa, garbiketa eta zerbitzuak.
- Bide-bazterren garbiketa.
- Eskola eta guraso elkartea.
- Eskolaz kanpoko jardueren eskaintza.
- Ieltxo kultur elkartearen ekintzak.
- Herri Kontseiluaren ikastaro eta ekitaldiak.
- IKO Igeldoko kooperatiba.
- Ostalaritza-eskaintza.
- Udaltzaingoaren erantzun azkarra, edo ur-hornidurarekin eta saneamenduarekin izan diren arazoaren aurrean egon den erantzuna ere.

## 4.3. Hobetu beharreko zerbitzuak eta falta direnak

### 4.3.1. Herri-lanak eta mantenua

- Bideen eta espaloien konponketa, mantenua eta garbiketa:
  - Errepideak: zuloak, bide-bazterren garbiketa, pintura.
  - Errepide nagusiaren egoera txarra, jasaten duen trafikoa kontuan hartuta.
  - Herri-bideen eta mendi-bideen mantenua eta garbiketa.
  - Irisgarritasuna bermatzeko lanak: gurpildun aulkiak etab.
  - Zoladuren eta espaloien egoera txarra.
  - Espaloia herritik gora egitea, kanpineraino. Auzune nagusietan ere espaloia egitea (ETUME-Amezti).

■ Trafikoa eta bide-segurtasuna:

- Bidegurutze arriskutsuak: Benta Alegre, Amezti, IKO...
- Zebra-bideen falta zenbait puntutan.
- Trafikoaren zaintza, abiadura kontrolatzeko badenak.
- Elurra kentzeko makinak bigarren mailako bideetan ere ibiltzea.
- Trafiko-seinaleztapenaren beharra, kritikoak diren puntuetan: Marabieta-Amezti, Tximistarriko sarrera...
- Seinaleak jartzea bidegurutzeetan, etxeen eta baserrien izenekin.

■ Argiteria:

- Linea elektrikoa konpontzea (kableak zintzilik, posteak okertuta).
- Kableak lurperatzea.
- Argiztapena hobetzea hainbat tokitan (Gudamendiko sarrera, Tximistarriko sarrera, bigarren mailako bideak etab.)

■ Estolderia eta uren saneamendua:

- Konponketak egitea.
- Etxe eta baserri guztietara iristea.
- Suteei erantzuteko ur-hornidura puntu gehiago jartzea.
- Estolda-zuloen ataskoa.

■ Bankuak eta atsedenerako tokiak:

- Santiago bidean.
- Igeldoko adinekoentzat.

### 4.3.2 Garraioa eta mugikortasuna

#### ■ Autobus zerbitzua:

- Autobus zerbitzuaren ordutegiak hobetzea eta maiztasuna areagotzea (goizean goiz, asteburuetan gauetan gazteentzat etab.).
- Udarako maiztasuna errespetatzea eta kaskoan gelditzea.
- Autobusaren ibilbidea murriztea, edo lanzaderak jartzea Antiguara.
- Autobusean bizikletak, umeen karroak edo gurpildun aulkiak eraman ahal izatea.
- Zenbait geltokiren segurtasuna hobetzea (Tximistarri).

#### ■ Bestelako garraiobideak:

- Autobusaren osagarri izango den garraio-zerbitzu baten beharra, beste eremuetara iristeko: taxia, mikrobusa...
- Bidegorria egitea Donostiaraino.
- TAO txartela edukitzea hirian autoa aparkatzeko.

### 4.3.3. Etxebizitza-eskaintza eta garapen urbanistikoa

#### ■ Etxebizitza-eskaintza:

- Babes ofizialeko etxeen eskualdaketa igeldotarren esku geratzea.
- Beharrei egokitutako promozio txiki berriak egitea.
- Etxebizitza soziala, bertako beharrei erantzunez.
- Gazteentzako etxebizitzak.

#### ■ Garapen urbanistikoa:

- Eraikuntzarako lizentziak TETek kudeatzea.
- Lurraldearen babesa eta kontrola.
- Garapen urbanistikoak egitean igeldotarren iritziak kontuan hartzea eta beharren arabera garapena egitea.

- Obra irregularren gaineko kontrola, igeldotarren eskaerak eta iritzia kontuan hartzea bertara zuzentzen diren ekintza eta proiektuen aurrean.

#### **4.3.4. Hondakinak eta zabor-bilketa**

■ Zabor ontziak eta zabor-bilketa:

- Zabor-ontziak jartzea eta zaborra biltzea auzune guztietan.
- Edukiontzien ahoa bideari begira egotea, ez mendi aldera.
- Bilketaren maiztasuna errespetatzea eta horretarako informazioa ematea.
- Zaborra biltzera prebentzio gisa ere pasatzea, ez deitzen zaienean bakarrik.
- Puntu zehatz batzuetako garbiketa zaintzea (kanpina, Tximistarri)

#### **4.3.5. Aisia, kultura eta kirola**

■ Ekipamenduen konponketa eta zaharberritzea:

- Frontoia.
- Jolas-instalazioak (parkea estalia).
- Komun publikoak.

■ Kultur etxe berri bat atontzea:

- Liburutegia, ikasteko espazioa, ikastaroetarako gelak...
- Kultur eskaintzarako eta kultur-taldeen erabilerarako aretoa.
- Aukerak: Eskola Zaharra eta eliza ondoko gela.

■ Bi kolektibo espezifiko dinamizatzeko lokalak atontzea:

- Gazteentzako (Gaztelekua)
- Adinekoentzako

■ Bestelako ekipamenduak: igerileku publikoa, kiroldegia.

#### 4.3.6. Osasun- eta gizarte-zerbitzuak

■ Osasun-zerbitzuak eskaintzea:

- Anbulatorio edo kontsultorioa.
- Farmazia edo dispentsarioa.
- Anbulantziak Igeldon zehar ibiltzeko jarraibideak.

■ Gizarte-zerbitzuak:

- Eguneko zentroa.
- Etxez-etxeko zerbitzua.
- Baserrietara ogia eta egunkaria eramateko zerbitzua.

#### 4.3.7. Eskola

■ Eskolaren eraikina Tokiko Entitate Txikiak kudeatzea eta “herrira irekitzea”:

- Jangela eta sukalde propioa edukitzea.
- Aretoak erabili ahal izateko tramiteak arintzea.

■ Haurreskola eta Bigarren Hezkuntza ere Igeldon eskaintzeko aukera aztertzea.

#### 4.3.8. Ingurumena

■ Landa-eremuaren eta naturaren babesa:

- Mendizorrotzeko parkeari balioa ematea.
- Landare inbaditzaileen ugaritzea etetea.
- Material kutsatzaileen erabilera murriztea (neumatikoak...)
- Kontzientziazio- eta sentsibilizazio-lanak egitea.
- Energia berriztagarrien sustapena.

#### 4.3.9. Ondarea

- Ondarearen zaintza, mantenua eta ezagutza.
  - Igeldoko eraikinak, herri bideak...
  - Ondare arkeologikoa zaintzea eta ezagutaraztea.

#### 4.3.10. Turismoa

- Antolaketa eta desestazonalizatzea: ez dadin turismo guztia udaran pilatu.
- Etxebizitza turistikoen eskaintza erregulatzea: festak, musika, zarata...

#### 4.3.11. Udaltzaingoa

- Udaltzaingoarean ofiziozko esku-hartze handiagoa:
  - Etxe-lapurretak.
  - Botatako hondakinak zaborra biltzeko lekuetan, ur-putzuak...
  - Kale-edanak, zarata, zaborra...

#### 4.3.12. Hilerria

- Bertatik kudeatzea.
- Espazio falta.

#### 4.3.13. Internet, estaldura

- Internet, wi-fi eta estaldura hobetzea

#### 4.3.14. Jarduera ekonomikoa

- Bertako merkataritza sustatzeko laguntza, babesa.
- Nekazaritza-arloko dirulaguntzak.

#### 4.3.15. Hizkuntza

- Dibertsitate linguistikoa kontuan hartzea: euskaraz bakarrik informatzeak zenbait herritarren parte hartzea mugatu dezake.

## 5 Parte hartzaileen datuak

Prozesuko parte hartzaileen profilari dagokionez:

- Online galdetegiko lagin estrategikoa izan da gazteena. Hala ere, 30 urtetik beherakoen parte-hartze eskasa da partaidetza prozesuko hutsune nagusia. 65 urtetik gorakoen ordezkartzarik handiena aurrez aurreko foro-irekian izan da.
- Generoari dagokionez, elkarrizketek orekatu dute foro-irekiko eta online galdetegiko gizonaizkoen parte-hartze mugatuagoa. Azken horretan, batez ere, emakumezkoak izan dira nagusi.
- Auzoen araberako banaketari dagokionez, Hegoaldea (ETUME, Gudamendi...) biztanleria aldetik duen pisuaren gaineratik geratu da, bai online galdetegian baita elkarrizketetan ere. Mendialdea, aldiz, biztanleria aldetik duen pisuaren azpitik bietan, baina elkarrizketetan batez ere.

**4. taula: Hiru kanaletako parte-hartzea generoaren, adinaren eta auzoaren arabera, Igeldon multzo bakoitzak duen pisuarekin alderatuta**

	Foro irekia	Online galdetegia	Elkarrizketak	Igeldo
Emakumezkoak	% 49,4	% 63,6	% 38,8	% 49,3 (Iturria: Donostiako Udala, 2021)
Gizonezkoak	% 38,8	% 36,4	% 61,2	% 50,7 (Iturria: Donostiako Udala, 2021)
<30 urte	% 1,5	% 13,6	% 0,0	% 28,8 (Iturria: Donostiako Udala, 2021)
30-65	% 66,5	% 68,2	% 83,3	% 50,3 (Iturria: Donostiako Udala, 2021)
>65	% 32	% 18,2	% 16,7	% 20,9 (Iturria: Donostiako Udala, 2021)
Herrigunea	—	% 25	% 16,7	% 20 (Iturria: H.K. 2022)
Amezti	—	% 18,2	% 38,9	% 20 (Iturria: H.K. 2022)
Etume-Gudamendi	—	% 29,5	% 33,3	% 10 (Iturria: H.K. 2022)
Beste guztia	—	% 27,3	% 11,1	% 50 (Iturria: H.K. 2022)

Iturria: Siadeco, 2022



## 5.1. Partaidetza-foro irekia (martxoak 20, Igeldoko frontoian)

**5. taula: saioko parte hartzaileak generoaren arabera**

	Emakumezkoak	Gizonezkoak	Besterik	Guztira
Kop.	43	33	10	85
%	% 49,4	%38,8	%11,8	% 100,0


Iturria: Siadeco, 2022

**6. taula: saioko parte hartzaileak adinaren arabera**

	<30	30-49	50-64	>65
Kop.	1	35	19	26
%	% 1,2	%43,2	%23,5	%32,1

Iturria: Siadeco, 2022

**1. irudia: Saioko parte hartzaileen bizitokia**



## 2. irudia: Saioko parte hartzaileen balorazioa



## 5.2. Online galdetegia (martxoak 21 -apirilak 3)

**7. taula:** galdetegian parte hartu dutenak generoaren arabera

	Emakumezkoak	Gizonezkoak	Guztira
Kop.	28	16	44
%	% 63,6	% 36,4	% 100

Iturria: Siadeco, 2022

**8. taula:** galdetegian parte hartu dutenak adinaren arabera

	<30	30-49	50-64	>65
Kop.	6	20	10	8
%	% 13,6	% 45,5	% 22,7	% 18,2

Iturria: Siadeco, 2022

**9. taula: galdetegian parte hartu dutenak auzoaren arabera**

	Kop.	%
Amezti	8	18,2
Etume	1	2,3
Hegoaldea (Gudamendi, Tximistarri, ...)	12	27,3
Herrigunea	11	25,0
Mendialdea (Agiti, Arritxulo, Buztinzuri, ...)	7	15,9
Beste bat	5	11,4
<b>GUZTIRA</b>	<b>44</b>	<b>100</b>

*Iturria: Siadeco, 2022*

### 5.3. Elkarrizketak

**10. taula: elkarrizketatu diren pertsonak generoaren arabera**

	Emakumezkoa	Gizonezkoa	Guztira
Kop.	7	11	18
%	% 38,8	% 61,2	% 100

*Iturria: Siadeco, 2022*

**11. taula: elkarrizketatu diren pertsonak adinaren arabera**

	<30	30-49	50-64	>65	Guztira
Kop.	0	6	9	3	18
%	% 0,0	% 33,3	% 50	% 16,7	% 100

*Iturria: Siadeco, 2022*

**12. taula: elkarrizketatu diren pertsonak auzoaren arabera**

	Herrigunea	Amezti	ETUME	Hegoaldea	Mendialdea	GUZTIRA
Kop.	3	7	2	4	2	18
%	% 16,7	% 38,9	% 11,1	% 22,2	% 11,1	% 100

*Iturria: Siadeco, 2022*